

IRUÑA ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK

Pastoral Idazkiari buruzko gogoeta  
pertsonala egiteko eta taldean lantzeko  
oharrak

**Ekonomia gizakiaren esanetara**  
***Krisialdian, bihozberritzea eta elkartasuna***

2011ko GARIZUMA - PAZKOA

## **Aurkezpena**

✓ Iruña eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteizko gotzainek batera idatzi duten Pastoral Idazki honek "*historiako gertaeren bitartez bihozberritzera mugitzen gaituen Espirituaren deia ozenago*" entzuten lagundu nahi digu, fededun bezala, gaur egungo egoeran Ebanjelioaren testigantza eman dezagun.

✓ Gogoeta eta elkarrizketaren bidez, ondoz ondoko etapetan egin dezakegu aurrera:

### **0. Sarrera**

#### **I. Idazkiaren giltzarri iradokitzailak**

Gogoeta honen hasieran ditugun galdera eta itxaropenez jabetzeko.

#### **II. Ekonomia – finantza krisia baino gehiago**

Krisi egoera hobeto ulertzen laguntzen du: bere sorburua, bere hedadura eta bere ondorioak.

#### **III. Aztertu beharrekoa**

Bizitza ekonomiko eta soziala sakon onbidera eta berrizta dezaketan oinarrizko printzipio eta irizpideak aurkezten ditu.

#### **IV. Karitatea zuzentasunean, parte hartzean, errukian eta elkartasunean bizi**

Eliz eta gizarte esparru desberdinetan sustatu beharreko konpromiso pertsonak, komunitario eta instituzionalak, pribatu eta publikoak mahaigaineratzen ditu.

✓ Hemen aurkezten diren gaiak gogoeta eta elkarrizketarako iradokizunak baizik ez dira. Talde bakoitzak zabal edo alda ditzake bere beharren arabera egokituz.

✓ Jakina, nor bere gogoeta batera jartzeko eta taldeko elkarrizketaren bidez aurrera egiteko, alde aurretik bakarka irakurri eta hausnartu behar dugu testua eta gizarte egoera, aurkeztutako galdeketaren laguntzarekin. Talde batzarrean, aurretiko ahalegin pertsonal hau egin ez duenak besteek diotena entzutea litzateke komenigarriena.

✓ Otoitz giroan egingo ditugu bakarkako lana, talde elkarraldiak, gaur egungo krisialdia itxuratzen duten gertaeren azterketa eta gure hausnarketari argi egingo dion Jainkoaren Hitzaren entzutea. Jainkoak, gaur, sen berriarekin hitz egiten digulako bizitzako egoeren bitartez, Idazteunaren orrialdeen argitan.

## **0. SARRERA**

### **I. IDAZKIAREN GILTZARRI IRADOKITZAILEAK**

*Idazkiak, sarreran, honen helburua, motibazioa, egitura eta jasotzaileak aipatzen ditu. Ondoren, lehenengo zatian, pastoral idazki honen gaiaren ikuspuntu sinesteduna eratzen duten osagai desberdinak aurkezten ditu.*

#### **Gogoeta pertsonala egiteko eta taldean lantzeko oharrak**

1. Irakurri -arkatza eskuan- Idazkiaren lehenengo bi atalak: **0. Sarrera eta I. Idazkiaren giltzarri iradokitzaileak** (2-6 or.). Azpimarratu nabarmenentzat jotzen duzuna eta idatziz jaso talde batzarrean argitu nahiko zenituzkeen gaiak.
2. Zuk zeuk, nola bizi duzu gaur egungo krisialdia?, orain arte, zertan eragin dizu krisiak?, zein kezka nagusi duzu krisialdiaren aurrean?
- 3 Zer bilatzen duzu eta zer uste duzu aurkituko duzula krisiaren inguruko Pastoral idazki honen irakurketa eta gogoeta konpartituan?
4. Sinestedun edo kristau izanik, gizarte mailan bizi dugun krisi egoerak sortu dizu galderarik? Zeintzuk?
5. Zeure fededun esperientziatik, zein jarrera duzu **Pastoral idazki honen giltzarri nagusi** desberdinei dagokienez?, horietako zeinekin zatoz bat errazago?, zeintzuk onartzen dituzu zailtasun handiagoz?
6. Nola egiten dio argi gure egoera pertsonalari eta/edo taldekoari Jainkoaren Hitz honek?

*“Jesusek hau ere esan zion jendeari: sartaldean lainoa ikusi orduko, «euria dator» esaten duzue eta hala gertatzen da. Hegoa haizea denean, berriz, «sargoria dugu», esaten duzue eta hala gertatzen da. Itxurazaleok! Badakizue zeru-lurren itxurari antzematen eta nola ez diozue antzematen garai honi? Zergatik ez duzue zeuen kabuz zuzen dena erabakitzen?”*

Lk 12,54-57

## 7. Otoitza

**"Jainkoaren begirada ez da gizakiarena bezalakoa"** (I Sam 16, 7)

Jauna, emaguzu zure argia, Zeuk ikusten duzun bezala ikus dezagun dena.

- Gure begiak munduko gauza miresgarriak ikusteko gauza izan daitezela, gauza horietan Zeuk emandako edertasuna ikus dezagun.
- Gure bihotzak zure Espirituaren presentzia aitor dezala eguneroko gertakizunetan.
- Gure ezagumena besteek izan dezaketen egiaren zatiaz jabetzeko prest egon dadila.
- Gure borondatea batasunaren harmonia bilatzera zuzendurik egon dadila.
- Gure itxaropena zure maitasunak guretzat onena eragin dueneko segurtasunean oinarrituta egon dadila.
- ...

## II. EKONOMIA – FINANTZA KRISIA BAINO GEHIAGO

*Idazkiaren bigarren zatiak krisiaren bilakaera eta hedapena aztertzen ditu, bere arrazoi eta ondorioak aurkeztearekin batera. Krisi egoera honek hainbesteko gordintasunez dakarkigun ikasgai ikasteko dei egiten digu.*

### **Gogoeta pertsonala egiteko eta taldean lantzeko oharrak**

1. Irakurri –arkatza eskuan- Idazkiaren bigarren atal nagusia: **II. Ekonomia – finantza krisia baino gehiago** (6-10 or.). Azpimarratu nabarmenentzat jotzen duzuna eta idatziz jaso talde batzarrean argitu nahiko zenituzkeen gaiak.
2. Azalduko zenituzke labur-labur, zeure hitzak erabiliz, gaur egungo krisiaren arrazoi nagusiak?, nortzuk lirатеke, zure iritziz, horien arduradun nagusiak?, zergatik?
3. Zeintzuk dira, gaur egun, zure ikuspuntutik, krisialdi honen ondoriorik larrienak?, zuk ikusten duzunaren arabera, zeintzuk lirатеke krisi honek gehien eragiten dien gizabanako edo gizataldeak?, zergatik?
4. Pastoral idazkian jasotzen denez, krisia **ikasgai sanoak ikasteko aukera** bada, zeintzuk dira, zure ikuskeratik, ikasi beharko genituzkeen ikasgaiak? (arlotan pertsonalean, familia, gizarte, politika, nazioarte... arloan)

5. Nola egiten dio argi krisiaren arrazoi eta ondorioei buruzko gure gogoetari Jainkoaren Hitz honek?

*Kontuz sasiprofetekin! Ardi-larruz jantzirik badatozkizue ere, otso harrapari dira barrutik. Beren egintzetatik antzemango diezue. Elorritik biltzen ote da mahatsik edo gardutik pikurik? Zuhaitz onak fruitu ona ematen du eta zuhaitz txarrak fruitu txarra. Zuhaitz onak ezin du fruitu txarrik eman ezta zuhaitz txarrak ere fruitu onik. Fruitu onik ematen ez duen zuhaitza moztu eta sutara botatzen da. Beraz, beren fruituetatik antzemango diezue sasiprofetei.*

(Mt 7,15-20)

6. Otoitza

**“Emaguzu askatasuna”**

Jesus Jauna, emaguzu askatasuna.

- aska gaitzazu erosotasunetik, zerbitzari izateko;
- aska gaitzazu axolagabekeriatik, behartsuengana hurbiltzeko;
- aska gaitzazu beldurretik, konfiantzaz bizi izateko;
- aska gaitzazu gorrototik, maitasuna aurkitzeko;
- aska gaitzazu geldotasunetik, ezustekoari aurre egiteko;
- aska gaitzazu tristuratik, poztasuna ereiteko;
- aska gaitzazu gauzak pilatzetik, elkarbanatzen jakiteko;
- aska gaitzazu itxurakeriatik, benetako dastatzeko;
- aska gaitzazu norberekieriatik, elkartasunaz gozatzeko;
- aska gaitzazu indibidualismotik, batasuna jadesteko;
- aska gaitzazu lehiakortasunetik, senidetasuna aurkitzeko;
- aska gaitzazu interesetik, doakotasuna sentitzeko;
- aska gaitzazu segurtasunetik, itxaropenari eusteko;
- aska gaitzazu nork bere burua katigu izatetik, egia bilatzeko;
- aska gaitzazu geure inguru estutik, besteengan aurki zaitzagun;
- ...



### III. AZTERTU BEHARREKOA

*Idazkiaren hirugarren zatiak Elizaren Doktrina Soziala abiapuntutzat hartu eta, kultura berriaren barnean, gizakiaren esanetara egongo den ekonomia eraikitzeko oinarriak aurkezten ditu.*

#### **Gogoeta pertsonala egiteko eta taldean lantzeko oharrak**

1. Irakurri –arkatza eskuan- Idazkiaren hirugarren atal nagusia: **III. Aztertu beharrekoa** (11-23 or.). Azpimarratu nabarmenentzat jotzen duzuna eta idatziz jaso talde batzarrean argitu nahiko zenituzkeen gaiak.
2. Pastoral Idazkian, *guztion ongizatea, ondasunen banaketa unibertsala eta elkartasuna* jotzen dira *merkatua, ekonomia eta garapena* ikuspuntu berritik bideratzeko.  
Zure ikuspuntutik: zein alderditan beharko liriateke aldaketarik funtsezkoenak?, zergatik?  
Ezagutzen duzu norabide honetan aurrerapena dakarren planteamendu, errealitate edo ekimenik?, zeintzuk?
3. Pastoral Idazkian, gaur egungo kulturen sustraitutako elementu batzuen anbiguitasuna aipatzen da egoeraren aldaketa sakona galarazten duen eragile bezala. *Kultura horretan zenbateraino parte hartzen dugun* galdetzeko dei egiten zaigu.  
Horien artetik, zein elementuk du eraginik negatiboena guregan?, zergatik?  
Bestelako zein aukera sustatu behar dugu kultura eta ekonomian aldaketa sanoa eragiteko?
4. Nola egiten dio argi gure gogoetari Jainkoaren Hitzak?

*Hauxe esaten zion Jesusek jendeari:*

*«Ez pilatu mundu honetan zeuen aberastasunak, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrak etortzen harrapatzera. Pilatu zeruan zeuen aberastasunak, han ez baititu ez sitsak, ez herdoilak jaten, ezta lapurrak harrapatzera joaten ere. Zeren, zure aberastasuna non, zure bihotza han. Begia da gorputzari argi egiten dion kriseilua. Begia onik baduzu, zure gorputz osoa argitan ibiliko da. Begia gaixo baduzu, ordea, zure gorputz osoa ilunpetan ibiliko da. Beraz, zeure barruan argi behar lukeena iluna bada, a zer ilunpea zurea! Ezin da inor bi nagusiren morroi izan; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maite, edota batari men egingo dio eta bestea begitan hartuko. Ezin zaitezketen Jainkoaren eta diruaren morroi izan.»*

(Mt 6,19-24)

## 5. Otoitza 126 SALMOA

Jaunak Sionen zoria aldatu zuenean,  
ametsetan ginela iruditzen zitzaigun.  
Barrez bete zitzaigun ahoa, poz-oihuz ezpainak.  
Jentil-herriek ere hau ziotsaten:  
bikain jokatu du haien alde Jaunak!  
Bikain jokatu zuen gure alde Jaunak eta pozarren gaude.  
Jaunak aldatu du gure zoria, euri-jasek basamortua bezala.

Malkotan erein zutenek pozetan dute biltzen!  
Negarretan joan ziren, hazi-zorroa eramanez;  
poz-oihuka datoz, garibalak ekarriz.

### **IV. KARITATEA ZUZENTASUNEAN, PARTE HARTZEAN, ERRUKIAN ETA ELKARTASUNEAN BIZI**

Atal honetan, Pastoral Idazkiak iradokizun eta proposamen-sorta zabala eskaintzen digu, krisialdian kristauon konpromiso pertsonala eta komunitarioa bideratzeko eta sustatzeko, hark sortu dituen arazo larriak eta bere ondorioak gordintasun beteaz jasaten dituzten gizataldeak kontuan hartuta.

Bere proposamenak gure gizarteak gaur egun bizi duen krisi egoerari konponbidea bilatzeko eragile izatera deituta dauden pertsona eta erakunde guztiei ere zuzentzen zaizkie.

#### **Gogoeta pertsonala egiteko eta taldean lantzeko oharrak**

1. Irakurri -arkatza eskuan- Idazkiaren laugarren atal nagusia: **IV. Karitatea zuzentasunean, parte hartzean, errukian eta elkartasunean bizi** (24-36 or.). Azpimarratu nabarmenentzat jotzen duzuna eta idatziz jaso talde batzarrean argitu nahiko zenituzkeen gaiak.
2. Gaur egungo krisi egoeraren inguruko hausnarketa honen ostean:
  - 2.1 Zein konpromiso hartuko duzu zeure eta familia bizitzan?
  - 2.2 Zein konpromiso hartuko edo sustatuko duzu zure lan bizitzan eta bizitza profesionalean?
  - 2.3 Zein konpromiso adieraziko edo bultzatuko duzu herri eta politika bizitzan parte hartuz?

3. Krisi egoerak kristauoi eta Elizari aurkezten dizkion erronkak direla-ta:

3.1 Zein jarduera edo konpromiso hartu beharko luke bere gain kide zaren kristau elkarteak?

3.2 Nola parte hartuko duzu zuk zeuk elkarte jarduera edo konpromiso horretan?

4. Erakunde publikoek gizarte bizitzan duten erantzukizuna kontuan hartuta:

4.1 Zein ekimen edo erantzuni eman behar diote lehentasuna erakunde publikoek krisi egoeratik eratorritako gizarte arazo larriei dagokienez?

4.2 Zer egiteko prest zaude proposamen hauen gizarte errebindikazioa sustatzeko edo babesteko?

5. Nola egiten dio argi gure gogoetari Jainkoaren Hitzak?

*Begira zegoela, aberats batzuk ikusi zituen Jesusek tenpluko dirutegian limosna botatzen. Ikusi zuen emakume alargun behartsu bat ere bi sos botatzen, eta esan zuen: benetan diotsuet: alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du. Izan ere, beste horiek guztiek sobera dutenetik egin dute limosna; honek, ordea, bere eskasian, bizitzeko zeukan guztia eman du.*

(Lk 21,1-4)

*Fededun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz, eta inork ez zuen esaten zeukana berea zuenik, baizik eta dena denena zuten. Apostoluek indar eta eragin handiz egiten zuten Jesus Jaunaren biztueraren testigantza. Jendeak oso estimatuak zituen; izan ere, ez zen haien artean behartsurik, zeren lurrik edo etxerik zutenek, dena saldu eta salmentaren ordaina apostoluen esku jartzen zuten; eta bakoitzari behar zuena ematen zitzaion.*

(Eg 4,32-35)



## 6. Otoitza

**Ekonomia gizakiaren esanetara** Pastoral Idazkiaren inguruan hausnarketan eta solasean jarduteko azken bilera hau, BUKAERA (36-38 or.) elkarrekin irakurriz eta Mariaren kantikarekin otoitz eginez buka dezakegu.

Jaunaren handitasuna dut goستن,  
pozaren pozez daukat barrena,  
Jainkoa baitut salbatzaile.  
Bere mirabe ezerez honengan jarri ditu begiak:  
horregatik, dohatsu deituko naute guztiek gaurdanik.  
Gauza handiak egin ditu nire alde Ahalguztidunak.  
Santua da eta gizaldiz gizaldi errukitsua  
begirune diotenentzat.  
Bere indar guztiaz jokatu du:  
buru-harroak suntsitu ditu,  
ahaltsoak goi-postuetatik bota  
eta ezerezak gora jaso;  
ondasunez bete ditu gose zeudenak,  
eta eskutsik bidali aberatsak;  
lagun etorri zaio bere herri Israeli,  
bere errukiaz oroiturik:  
hala hitzeman zien gure arbasoei,  
Abrahani eta ondorengoei betierean.